Código de validación/*Balidazio kodea*
154L585O0Y6Y6C2O0MZ5

AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
Fecha/Data 15-12-2020
Num./Zk. PLE/10/45/2020

*Honako hau egin da aditzera emateko Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2020ko abenduaren 15ean egindako Ezohikoa bileran, korporazio-kideen legezko kopuruaren aho batez, besteak beste, jarraian idatzitako erabakia hartu zuela:*

Se extiende para hacer constar que, por el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria de fecha 15 de diciembre de 2020, por unanimidad del número legal de miembros de la Corporación, entre otros, se adoptó el acuerdo que a continuación se transcribe:

*Mallabiko Udalak baliabide tekniko eta pertsonal gutxi dituenez eta Lanbidek 2020rako deitutako enplegu-planaren xede diren proiektuak eskatu eta abian jartzeko udal horrek dituen zailtasunak ikusita, beharrezkoa da beste administrazio batzuen laguntza, korporazio honek arlo horretan legez esleituta dituen eskumenak bete ahal izateko.*

Ante la escasez de medios técnicos y personales municipales, y la dificultad que ello plantea al Ayuntamiento de Mallabia para la solicitud y puesta en marcha de los proyectos objeto del plan de empleo 2020 convocado por Lanbide, se hace necesario el auxilio de otras Administraciones para el cumplimiento de las competencias que legalmente tiene atribuidas esa Corporación en dicha materia.

*Horren ondorioz uste dugu planteatutako premiari irtenbidea emateko modurik egokiena Ermuko Udalaren eta Mallabiko Udalaren artean kudeaketa-agindu bat formalizatzea dela. Horrela, bere izaera eta eskumenengatik, eta dituen baliabide tekniko eta pertsonalengatik, modu eraginkorragoan gauzatuko da eginkizun hori.*

A la vista de lo indicado, se estima que la solución más conveniente a la necesidad planteada es la de formalizar una encomienda de gestión entre el Ayuntamiento de Ermua y Mallabia, la cual, por su naturaleza y competencias, así como por los recursos técnicos y personales de que dispone se encuentra en condiciones de asumir dicha tarea de una forma más eficaz.

*2020ko abenduaren 1ean idazkariak txostena egin zuen kudeaketa-agindua gauzatzeko legez aplikatu beharreko prozedurari buruz, eta bertan jasotzen du, halaber, akordio-proposamena. Bestalde, udal-kontuhartzaileak ere ontzat ematen du kudeaketa-aginduaren proposamena bere txostenean.*

Visto Informe de Secretaría de fecha 1 de diciembre de 2020, sobre el procedimiento legalmente aplicable para llevar a cabo la encomienda de gestión , que incorpora propuesta de acuerdo; así como Informe de la Intervención municipal, que fiscaliza favorablemente la propuesta de encomienda de gestión .

*Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan arautzen dira administrazio publikoen arteko kudeaketa-aginduen*

Considerando lo dispuesto en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, sobre contenido, límites y requisitos de

*edukia, mugak eta formalizazio-baldintzak.*

***AKORDIOA***

***LEHENENGO**.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluaren babesean, obra-peoi bat kontratatzeko behar diren kudeaketak egiteko Mallabiko Udalak egindako kudeaketa-agindua onestea, beti ere enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2020ko diru-laguntzen deialdiaren baitan (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ekainaren 30ean argitaratua) Ermuko Udalak Lanbideri egindako eskabidean ezarritakoa errespetatuz.*

***BIGARREN**.- Ematen den kudeaketa-aginduak ez dakar eskumenaren titulartasuna lagatzea, eta udal-organo eskudunen erantzukizuna da aginduaren xede den jarduera material zehatza gauzatzeko behar diren egintza edo ebazpen juridikoak ematea.*

***HIRUGARREN**.- Kudeaketa-agindu hau Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, Ermuko Udalaren eta Mallabiaren arteko hitzarmena formalizatu ondoren, eta indarrean egongo da Lanbidek deitutako 2020ko enplegu-plana amaitu arte.*

***LAUGARREN**.- Erabaki honekin batera Eranskin legez dagoen kudeaketa-aginduaren hitzarmena onestea, eta alkateari ahalmena ematea hura sinatu eta formalizatzeko behar diren egintza guztiak egiteko.*

formalización de las encomiendas de gestión entre Administraciones Públicas.

**ACUERDO**

**PRIMERA**.- Aprobar la encomienda de gestión realizada por el Ayuntamiento de Mallabia, al amparo del artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público para la realización de las gestiones necesarias para llevar a efecto la contratación de un peón de obras en los términos establecidos en la solicitud formulada por el Ayuntamiento de Ermua a Labide dentro de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2020, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 30 de junio de 2020.

**SEGUNDA**.- La encomienda de gestión que se otorga no supone cesión de titularidad de la competencia, siendo responsabilidad de los órganos municipales competentes dictar cuantos actos o resoluciones de carácter jurídico den soporte a la concreta actividad material objeto de encomienda.

**TERCERA**.- La presente encomienda de gestión entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de la Provincia, una vez formalizado el convenio entre el Ayuntamiento de Ermua y Mallabia, y su plazo de vigencia será hasta la liquidación del plan de empleo 2020 convocado por Lanbide.

**CUARTA**.- Aprobar el convenio de encomienda de gestión que se adjunta como Anexo al presente acuerdo, y facultar al Sr. Alcalde para su firma y cuantos actos requiera la formalización del mismo.

***BOSTGARREN***.- *Erabaki hau Mallabiko Udalari jakinaraztea, hemen emandako kudeaketa-agindua onar dezan.*

***SEIGARREN***.- *Kudeaketa-agindua onartu ondoren, erabaki hau probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko da, jende guztiak horren berri jakin dezan.*

**QUINTA**.- Notificar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Mallabia, a efectos de que por su parte se proceda a la aceptación de la encomienda aquí conferida.

**SEXTA**.- Una vez aceptada la encomienda de gestión, el presente acuerdo se publicará en el Boletín Oficial de la Provincia, para general conocimiento.

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

Fdo./Sin.:
Secretario/Idazkaria
Daniel Salazar Irusta
17-12-2020 12:29